



Denok dakigu, eta haurrek ere badakite, maitatzea eta maitatua izatea zoriontasun-iturri dela. Eta hori da, hain zuzen ere, Jesusek proposatzen diguna:

ELKAR MAITATZEA ETA ZORIONTSU IZATEA.

Besteak beste galdera hauek eginez, haurrekin elkarrizketa pitz dezakegu:

- «Bizikletaz, oinez edo autoz ibiltzen garenean, nahi duguna egin dezakegu ala arau batzuk bete behar ditugu?
- Lorategiak hondatzen ibil gaitezke, loreak puskatzen eta mendiak zikintzen?
- Zaborra mendian, parkean edo kalean botata utz dezakegu?
- Animaliei jotzen ibil gaitezke?

Eta zer gertatuko litzateke etxean bakoitzak sudur puntan jartzen zaiona egingo balu?».

«Zer agindu edo arau ezagutzen dituzue? Etxean, kirolean, zirkulazioan, ikastolan... Zertarako balio dute arau horiek?».

Etxean eta gizartean arau batzuk ditugu denok elkarrekin ahalik eta ondoen bizitzeko. Eta, hain zuzen ere, elkar maite dugulako betetzen ditugu arauak.

Denon artean, haurren liburuko **58. orrialdea** irakurriko dugu. Jesusek elkar maitatzeko esaten digu, eta horixe da agindu nagusia.

“Lege-maisua” erlijio- eta lege-kontuetan jakintsua zenari deitzen zitzaion horrela.

“Agindu edo legea” gizakia eta gizartea ondo moldatzeko arauak dira. Horregatik errespetatu eta bete behar ditugu.

Irakur ditzagun **60. orrialdean** idatzi dituzten erantzunak.

«Lagun hurkoa maitatzen dugunean, ongia egiten dugu, errespetatu egiten ditugu besteak, eta zoriontsuagoak izaten gara».

63. orrialdea: esan dezatela zertan ari diren laguntzen marrazkian ikusten ditugun pertsonak. Laguntzeko beste moduren bat bururatzen bazaie, aipa dezatela modu hori ere eta ondoren haurren artean 2go horria (AGINDU BERRIA). banatuko dugu irudi egokienak margotu ditzaten

Bihotzaren irudia (3 irudia) hartu, moztu eta bertan idatzi zertan lagun dezakeen bakoitzak etxean, ikastolan...Nahi badute, margotu egin dezakete.

Bukatzeko, *Gure Aita* errezatuko dugu, baina esaldiz esaldi, txandaka joanez. Katekistak aitagurearen lehen esaldia esango du, eskuinaldean duen haurrak hurrengo esaldia esango du, hurrengoak hurrengo...eta horrela. Haurren batek ez badaki zein esaldi datorren, katekistak esango du eta haurrak errepikatu egingo du, eta hurrengoak jarraituko du.


Gure Aita otoitzaren orriak hor daukazue, hutsuneak betetzeko.

AGINDU BERRIA

Margotu besteak maitetzea zer den adierazten duten loreak



Margotu maitasunaren agindua betetzen duten ekintzak





Hau da nire agindua :

**Maita dezazuela elkar
nik maite izan zaituztedan
bezala.**

Joan, 15:12

Gure Aita.....zerana,
santu izan bedi Zure.....,
etor bedi.....erreinua,
egin bedi Zure nahia.....bezala
.....ere

Emaiguzu
gaur.....hontako.....
barkatu gure.....
guk ere.....zordunei
.....diegunez gero,
eta ez gu.....eraman
baina.....gaitzazu.....

AMEN